

Euskara batua dela eta

Euskara batua dela eta, gauza harrigarriak irakurtzen ditugu. Batuak bidea ireki duen heinean, badirudi zenbaitek beren buruak arrelaritzat jarri nahi dituztela, gauzak nola bideratu ziren jakin gabe. Baina Euskaltzaindiaren agiriak behar bezala irakurriko balituzteke, zentzu hobez agertuko lituzteke beren iritziak.

Euskararen batasuna askoren lana izan da. Ideiak, aspalditik hor zetozten, Euskaltzaindia sortze garai beretik. Hori bai zen erakundearen eginkizuketariko bat. Oroi, gai hortaz Pierre Broussain eta Arturo Campión jaunei eskatu zitzairen txosten hura, haiek "Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskara" izenburupean aurkeztua (*Euskera*, III, 1922, 4-17 orrialdeetan argitaratua).

Baina, gu baino zaharragoek ziotenez, oinarri horietatik aurrera jokatzeko nekeza omen zen, aldi hartako garbizaletasunagatik (garbikeria esango nuke nik) inor auzartzen ez zelako. Hortaz, irakurtzekoa da Azkue berak aurkeztu zuen txostena: "Euskeraren batasu-

naz (iritzi guztien laburpena)", (*Euskera*, III, 1922, 123-132. orr.).

Denborarekin, Azkue bera izan zen, bere kaxara, "Gipuzkera osotua" proposatu zuena (*Euskera*, XV, 1934, 159. or. eta XVI, 1935, 151-184 eta 288. orr.). Eta hori izan zen gerrate ondorean gehienek oinarritzat hartua.

Imanol Murua Uriak azken Jaikin aldizkarian "Federiko Krutwigi elkarrizketa" deritzan haretan (ikus, *Jakin*, 101. zenb., 61-75. orr.) agertzen da F. Krutwigek berak ezagutu zuen gerraondoko Euskaltzaindiaren zenbait gora-behera, bereziki 67-75. orrialdeetan. Zuzenki ez nuen ezagutu aldi hura, baina bai argitaratzen zituzten batzar agorien bidez. Zuzenago dakidana, zera da, 1957an urgazle izendatu nindutenetik hasi nintzen hileroko batzarretara joaten eta batzarrak euskaraz egiten zirela.

Ezer gutxi edo batere ez dio aurrekoek, hobeto esan, hasierakoek batasunari buruz egin zituzten proposamen eta asmoez. Beharrezkoak ez ote? Ai, baina bakoitza bere belaunaldikoa izaki. Baina erakun-

duaren erroek sakonago eta zabala-
go ez ezik urrutiagora garamatza.
Erakundearen egitura ezagutzeko,
lehen oinarrietatik hasi beharra
dago.

Bakoitzak bereak kontatzeko-
tan, guziok dugu zerbait esan beha-
rra. Ni ere, aurkitu nuen Euskal-
tzaindiaz mintza nezake, hileroko
batzarrak bakoitzak zekarren txos-
tenera mugatzen zenekoa, beste
egitekorik ez bazegoen bezala. Hori
bai, aipatzen dituen tira-birak gain-
diturik ziren nonbait. Zeren hor
azaltzen zuena hala bazen, gehiago
zirudien talde politikaren baten ba-
besa edo kontrola behar beha-
rrezkoa zuen erakundea zela. Baina
ni sartu berrian, euskararen egoera
larriaren aurrean ekintza prakti-
koen egitura beharra ikusten nuen
eta behin baino gehiagotan propo-
satu ere bai.

Ordurako, Krutwig adiskidea
herbesteratua zen. Hala ere, itzul-
tzean Euskaltzaindia nola aurkitu
zuen galdetzean: "Tamalgarria. Ez
dute kultura zabalik euskaltzainek"
zioen (97. or.). Egia da inork ez da-
kiela guzia, baina guretariko inork
pentsatzen badu berak baietz, za-
lantzan jarriko nuke. Hortaz argitu
beharrezkoa, zera da, erakundea
zertarako den, eta hori erakundea-
ren sorkuntza beretik arautegiak
berak erakusten digu. Zer da beraz
"kultura zabala"? Hori ez ote da
unibertsitateentzat? Eta han ere, ez
ote bakoitzak bere eremuan?

Euskaltzaindikoek jakin behar
dutena, sortzetiko arautegiaren
arabera, beraien eremua euskara
ikertzean, zuzpertzten eta indartzen
oinarritzen dela. Politikagintza tal-
de bakoitzaren esku utziz. Hori ez
bai da Euskaltzaindia bezalako era-
kunde bati dagokiona.

Sentitzen dut hau esan beharra,
baina gehien gehiengoan bere ga-
raiko bitxikeria besterik ez zekarren
elkarrizketaren harian eta, gauza
handitzat, nork eta *El Diario Vasco*-
k 1997ko urriaren 16. orrian eman
zion kantxa. "Historia bizia..."
omen *Jakin*-goentzat, nik "bitxia"
diodanari.

Besteok ere badugu zer esanik,
zeren gerraondoko lehen urteetako
une haiek bakarrik ez bai dute egi-
ten erakundearen historia. Duela
hogetamar urte, urgazle izendatu-
rik sartu nintzenez, Juan Irigoie-
nek ez zuen kontrolatzen Euskal-
tzaindirik, deitura bereko beste
batek baizik. Eta alperrikakoa
zitzaidan hari elkarlanean aritzeko
eraz mintzatzea, batez ere lanerako
ekintza egituren antolaketa eska-
tzea, jokabideak berriztu beharra
zegoela eta abar, erakundeak berari
zegokion lana ahalik egokien bete
zezan. Krutwigek aipatzen dituen
aurreko gertakari haiegitatik edo
hertsirik aurkitzen nuen bere bu-
rria.

Koldo Mitxelena, kulturaz bazen
norbait, hizkuntzaz jakituna zer
esanik ez, eta argi bezain zuhurra
gauzak laster ulertzen. Beragana jo

nuen nire asmoak agertuz eta bai agudo jabetu ere. Gure hizkuntza larri ikusten zuen eta zerbait egin beharra berpiztu nahi bagenu, une haietan legez egin genezakeanaren barnean. Gairik premiazkoenetarako, ahal zen neurrian, batzordeak antolatuz elkarlanean aritzea onartu zuen. Gero ohartu nintzenez, asmo horregatik nonbait, hortik sortu zitzaiola bere proposamenez ni euskaltzain oso izendatzea. Izendatu eta laster egin ninduten idazkari eta une berean hasi lan egitura berriztatzen, zenbait gai garatzeko batzorde lanak sortuz. Idazkariordezko alogeratuagandik traba besterik ez nuen aurkitu. Sinestea ere. Baina eskerrak luzaroragabe J. L. Lizundia sartu zela idazkariorde, eta poliki-poliki gauzak gure asmoetara bideratu. Euskera agerkaria lekuko, batzar agiriak irakurri besterik ez dago ordutiko abantailaz ohartzeko.

Zer da ba erakunde bat, bere bete beharrak aurrera eramanez? Aldian aldiko moderi jarraituz, ez da gaizki greko-erromarrez gainera induismoaz, maxismoaz edo konfusioez mintzatzea, baita horietaz ikerketak egitea ere. Baina prediku horiek beste alor batekoak dira. Hori izan daiteke jakituria, ez dut ukatzen, baina ez gure erakundeari dagokion jakintza. Nire ustez, erakunde batek berari dagokion arauz eta zentzuz bete beharra du.

Haatik, aurrekoek ez bezala antolatatu genituen lanerako batzordeak,

bertsolari txapelketak antolatzeko, alfabetatze eta euskalduntze ekintzetarako (ikus hontaz, *Egan* aldizkariaren 1996ko 171-172 eta 247. orrialdeetan eman nituen argitasunak), itzultzaile eskola, hiztegi gintza, gramatika eta abar bultzatu ahal izan zirela.

Euskaltzaindiak, garai bakoitzean ahal bezala bete izandu bere egitekoa. Sortu zenetik bertatik, garai bakoitzeko politiko agintariegandik ez du izan harrera berdina, ez da gutxiagorik ere. Adibidez, Primo de Ribera generalaren "dictablanda" hartan oztupoak izan zituen eta Francoren diktadurapean, gorrien kontra altxatu zenagandik gorriak franko ikusi beharra. Politikaz nahastu gabe euskararen alde zintzo jokatu zuen Azkue handia izan ez balitz, Euskaltzaindia desegingo zuten. Bizkaiko Diputazioak Calle Iturrino fantoche harek Juan Irigoienek birtartez kontrolatzen saiatu ez bazen, egia da behar bada gauzak hobeto aurreratuko zirela. Puntu horietan interesgarriak dira Krutwigek kontatzen dituenak, izendapen berriak ere taxuz egin zituzten garai haretan, baina ez zuten jakin egitura minimum bat lortzen. Bakoitza bere mundutxoan zebilen. Euskararen batasuna? Hori zen gakoa. Gehienak Azkueren gipuzkera osotua eredu, eta beren ustez jakitunago ziren haiek, bakoitza bere euskalki narratsagoan edo garbikeriazkoagoan. Beren ustezko lapurtera klasikoan zebilenik ere bazen, lapurta-

rren parregarri. Bide asko ziren, buru adina aburu, baina euskara batura zentzuz eraman ahal izatekorik ez.

Anarkia horren ondotik etorri zen Baionako zina edo mezua, hango biltzarraren erabakiz (1964.eko abuztuaren 29-30.etan). Geroago, 1967.eko abenduko batzarrean Iruñean erabaki zen, Euskaltzaindiaren erreztaiak zetozela eta gai monografiko bat aukeratzea. 1968ko urtarrilekoan Bilbon euskara batura gai nagusitzat hartzea erabaki zen. Besteak beste, G. Aresti sutsu aritu zen horren alde, baina gehien iritzia zen gai hori aurrera eramatearen aldeko. Ondorean, lehen urratsak emateko, lanerako batzordeak antolatu ziren. Eta, era askotariko iritziak zebiltzanez, gaia bideratzeko buru baten premia ikusten genuen eta euskaltzainburu zen Manuel Lekuona berak eskatu zuen K. Mitxelena hautatzea, hizkuntza jakintzaz gizonik aukerakoena iruditzen zitzaiolako, eta ahobatez onartu zen. Bere egitekoa, euskara idatziaren batasuna hauta gai, txostena aurkeztu behar zuen izendatuko zen batzordearen buru bezala.

Euskaltzaindiaren asmoen lagungarri, Durangoko "Gerediaga" elkarteak euskal idazleen batzarra eratu zuen Ermuan, 1968ko ekainaren 28,29 eta 30.erako, idazleen iritziak jaso eta aztertzeke. Bilera hartako gaiak eta elkarrizketak ikus *Jakin* (Maiatza-Urria, 1968),

31-32. orrialdeetan. Beraz, gauzak ez ziren burutu nolana. Guzi horiek kontutan harturik bildu ginen Arantzazun 1968.eko urriaren 3tik 5era. Batasun eta erreztai buzur, ikus *Euskera*-n "Arantzazuko bilerak", XIII, 1968, 137-265. orr eta XVI, 1971, 5-107. orr. Oinarrizko agiriak hor daude, une bakoitzeko lekukotasunez. Idazkari nintzen aldetik, buru austerik nahiko izan nuen ahal bezala bideratzen.

Ideak eta ekintzak hor zeuden 1922.etik 1971era arte. Arantzazuko agiria, hara agertu ziren euskaltzain guziek aho batez onartua izan zen. Gero zeharka eta azpijanez, alde batetik eta bestetik, borrokaldiak sortu zirela? Hori beste kontu bat da. "Urre eztaien kronika" hartan argi azaldu nuen: "Batasuna, Mitxelenak bere txostenaren sarreran zion bezala, guztiok amore eman ezgin behar den gauza da", (*Euskera*, XVI, 1971, 10. or.).

Ondoko eztabaida setatiengatik, "Arantzazuko agiria" *Euskera*, XIII, 1968, 50. orrian argitaratu zena, *Euskera*, XVI, 1971, 99-100. orr. berrargitaratu genuen. Bigarren hontan, han ahobatez onartu zuten euskaltzainen izenak gehituz. Aldi berean gaztelerazko itzulpenarekin, zeren asko erdaraz aritzen baitziren alde edo kontra azalduz.

Gero, zenbait euskaltzain eta idazle elkartekoak bildu ginen Eibarran, Arantzazun gomendioz onar-

tutakoaren alde. Ikus *Batasunaren kutxa* (Lur editoriala. Donostia, 1970).

Bestalde, Arantzazun ahoz aipatu zena, zera zen, idazleek erabileraz zer bide hartzen zuten jakiteko zortzi edo hamar urteko epea beharko genuela erabaki zehatza-goetara iritsi nahiko bagenu. Horregatik antolatu zen Bergarako bilera 1978ko irailaren 4tik 8ra (ikus, *Euskera*, XXIII, 1978, 427-881. orr.).

Sarrerako hitzaldian Fr. L. Villasante mintzatu zen zenbait argitasun eskainiz, bereziki 453-456. orr. batasunaren historiaz. Ondotik Mitxelenak, agertu zuen txostenean, 467-477. orr., nahiko argi jartzen zuen nondik nora gindoazen.

Bergaran era askotariko proposamenak egin ziren, guziei entzun zitzairen. Baina Siadeco-ren estadistika lanean oinarriturik Martin Ugalde, Joan Mari Torrealdei eta Xabier Mendiguren jaun idazleek, azken hamar urteko liburu eta irakaskintzako jarrera zehatz-mehatz azaldu zuten. Uste dut aski izan zirela arazoak gainditzeko. Eta ikus amaierako "Adierazpena" zeritzan agiria (*Euskera*, XXIII, 1978, 866. orr.).

Jakintza, alor eta sail bakoitzari dagokion langintzan erakusten da eta, euskararen batasunean, Euskaltzainditik begiraturik, inork uka ezinezkoa zaigu askoren lana eta Koldo Mitxelenaren gidaritza izan zirela nagusi.

Juan San Martin